

## erdiko kaira

## Literatura

## Lau haikugile hamazazpiko isilaren inguruan mintzo

Juan Kruz Igerabide dute aitzindari. Berak, ezetz, bera baino lehen ere haikuak idatziak direla Patri Urkizu, eta Joseba Sarrionandia. Haikurik idatzi ez bazuten, haiku tankerako testuak baietz. “Haikuak idazten lehenengoa, behintzat, ez naiz. Eta, lehenengoa edo azkena izanda ere, berdin zait!” Igerabide bera, Josetxo Azkona, Josu Jimenez Maia eta Karlos Linazasoro lagun hartu eta abiatu gara, haikurik haiku.

MIEL A. ELUSTONDO

Argazkiak: Zaldi Ero

**Gizonaren irribarrea,  
emakumearen irribarrea,  
musu bat, eta ni.**

Igerabideren haikua da *Botoi bat bezala* (Anaya, 1999) liburuak dakarrena. Igerabide da, inondik ere, haikuak euskarara ekartzen jardun dutenen artean aitortza handiena jaso duen idazlea. Ez dira bart arratseko kontuak. “22 urte nituela aurkitu nituen haikuak. Lehendik zer edo zer entzuna nuen, bai, baina benetan orduan ezagutu nuen Baxo. Garai hartan, bi liburu oparitu zizkidaten, eta haietako batek, Baxorenak, sekulako eragina izango zuen haurrentzat idatziko nuen poesian.. Hortik hasi nintzen. Beste liburua, opari eman zidatena, *Poesia e Vida* zen, Maria Rosa Colaçoarena. Poema laburrak ziren, hurrek egindakoak, haiku tankerakoak, bizipenez beteak. Hortik aurrera, praktikatzen hasi nintzen. Gainera, denbora hartan bertan, Zen meditazioa egiten zuen jendearekin kontaktuan sartu nintzen, eta, jakina, Zen giroan, haikua meditazioaren adierazpide moduko bat da”.


Josetxo Azkonaren *Ez naiz Fujin izan* (Pamiela, 2011) irakurri dugu... Azkona ere denboran hogei-taka urte atzera joan da Alan Wattsen *El camino del Zen* (Zen-aren bidea) liburuaren bila, huraxe izan baitzuen itu-


rri. Hura, ordea, ez zen, zuzen, literaturari lotua, Wattsek literatura ez baina filosofia zuezez helburu. “Zen-az, budismoaz eta bertzez ari zen egilea, baina, azken atalean, haikuari buruz ari zen. Oraingo *Ez naiz Fujin izan* egin nuelarik, liburu hartara jo nuen, eta azpimarraturik ikusi dut! Beraz, zer edo zer ikusi nuen han. Denbora iraganik, gehiago irakurri dut, haikua hurbilago egin zait, jakina”.

Josu Jimenez Maiaren ibilian haiku jakin bat da batere ez baitezpadakoa, erabat inarrosi baitzuen haren barnea. “Iruñeko Auzolan liburu-dendan orri-markatzaileak egin zituzten aspaldian. Testua, harrigarria: *Lapurrary leihoan / ilargia / ahaztu zaio...* Hiru bertso xumetan, halako irudia biltzea!

Ryokan izeneko haikugile batena omen zen. Ryokan zaharra lotan zelarik, nabaritu zuen lapur bat sartua zela eta nahiago izan zuen futon delakoan gorde, lapurrak egin beharrekoa lasai egin zezan. Eta haiku horrek azpimarratzen du garrantzitsuena, ilargia, lapurrak eramaterik izan ez duena. Leihotik ageri zen ilargiari beha, idatzi omen zuen haiku hori.

Ikaragarria irudituz zitzaidan poema. Mendaldeko poesian, luzamendu eta luzimenduetan ibiltzeko joera; hark, berriz, bost-zazpi-bost silabako artefaktu poetikoan sentimendu hori biltzea zoragarria irudituz zitzaidan”. Aur-





ten berean, *Gerezi garaiko haikuak* (Maiatz, 2011) lana argitaratu digu Jimenez Maiak.

Karlos Linazasorok Roland Barthes du haikutto –Linazasorok berak erabilia du hitza inoiz–, lagun. “Barthesek honela dio: ‘Haikua bere baitara biltzen da. Itxuraz, utzi duen arrastoa desagertu egiten da. Ezer ez da atzema- mana izan. Hitzaren harria alferrik botea izan da. Ez dago olaturik, ezta zentzuaren jariorik ere’. Baxok, berriz, badakigu zer esan zuen, une jakin batean gertatzen den horixe”.

**Igogailutik irten zen gizalaba. Lurrina, ez ordea. (J. Azkona)**

Igerabide bere buruarentzat itzultzen hasi zen haikuak. “Horrela hasi, eta, artean irakasle nintzela, sei-zazpi urteko haurrekin saiatu nin-

**Juan Kruz Igerabide, Josu Jimenez Maia eta Karlos Linazasoro, euskaraz haikuei bidea zabaldu dieten hiru idazle. Badira gehiago ere eta ez dirudi aurrerantzean soka etengo denik.**

tzen gero, haiei irakurtzen, eta haiek ere haiku egiten jarrita, hamazazpi silaba zirela eta halakorik esan gabe. Batzuetan, lerro bakarrekoak egiten zituzten. Baina ez zion axola, haikuak berezko duen sentsazioa biltzen zuten-eta. Garai hartakoa dut *Begi niniaren poemak*. Ez da haiku generokoa zeharo, baina badu hortik. Gainera, hor nuen beti *Poesia e Vida* liburua, eta handik ere edan nuen”. Ez dio bide horri utzi harrezkero. “Lan pertsonalago bat egin nahi izan dut ordutik hona, eta haurrekin harremanak ditut eskolara egin ohi ditugun bisiten bitartez. Horrela etorri ziren *Hosto gorri, hosto berde*, eta gainerakoak”.

Azkonak ez zuen sobera denbora behar izan haikuak bere lanera ekartzeko, eta *Artius* lehen lan argitaratuan ere ageri dira. “60 bat haiku izanen dira han. Haiku, edo haiku izan nahi zutenak. Ideia azalekoak nituen, sakondu gabeak”. Ondotik, dozena bat haiku –lehen liburukoak baino “haikuagoak” beraren esanetan–, eman zituen *Koilara bete hitz* liburuan. Osteen, haiku gehiago *Arbola naiz, eta zuhaitza* lanean. Baina idazleak gehiago eskatu zion bere buruari: “Liburu oso bat prestatzen hasi nintzen, haikuen inguruan. Eta egiten hasi nintzen, haikua landu ondoren. Horretarako, Japoniako kultura, historia, eta haien ikuskera aztertu nuen, haikua hura barrendu nahian. Lan serioagoa, landuagoa dut *Fujin*”.

Haiga liburu batetik abiatu zen Jimenez Maia, haikuari laguntzen dion, hura edertzen duen irudi bildumatik. “Yukki Yaura zen egilea. Biziki estimatzen nuen lan hura. Espainiar Estatuan, Hiperion argitaletxea lan ederra egin da haikuen inguruan; hor dira Jesus Munarrizek eta Teresa Herrerok egin dituzten itzulpenak. Gero, Ryokan deskubritu nuen. 99 haiku besterik ez zaizkio ezagutzen. Hark, maitemindu ninduen. Eta betikoa: ‘Hau euskaraz?’, eta itzultzen hasi nintzen” Bidean, Ryokan, Baxo, Xiki eta beste ezagutu ditu. Eta, orduan, beste urrats bat aurrera. “Reiko Furu-no ezagutu nuen, kamishibai [jipuinak kontatzeko eta idazteko] teknika irakatsi zidan. Ryokanen haikuak euskaratzen hasi nintzelarik, berari erakusten nizkion. Ingelesetik eta gaztelanatik euskarara ekarri ohi nituen, eta berak esan zidan bide luzea egiten ari nintzela: japonieratik ingelesera itzuliak ziren, lehenengo; ondoren, euskarara. Jauzia zela, eta handia. Berak naturatik behar nuela edan esan zidan, behar nuela sentitu...”. Horrela hasi zen Jimenez Maia bere baitarik, haiku idazten.

Linazasoro gazte zen artean. 18 urte zituela ondu zituen lehen haikuak. Haietarik batzuk bilduak ditu *Eguzkia ateri* liburu harribitxizkorian, eta lan berriagoa du *Hamazazpikotan*. Jimenez Maiaren gisara, Hiperion argitaletxeak egindako antologiak izan zituen abiapuntu.

“Minimalismoak erakarri nau beti. Haikuaren biluztasunaren esanahia ikaragarria iruditu zitzaidan, esaten zuena, eta, are, esan nahi zuena, edo iradoki zezakeena. Gure kulturari harrigarriak zaizkio haikuaren xalotasuna, sinpletasuna, ttikitasuna. ‘Zer da hau, ordea?’, esanarazten digu”, Linazasorori gaztetan esanarazi zion bezala... “Orduan idatzi nituen haikuak kriptikoagoak ziren, ulertzen ere zailagoak. *Hamazazpikotan* lanekoak, garbiagoak, irekiagoak dira. Gaztetan, ez dakizu gauzak nola esan ere. Ilunpea babes duzu. Idatzi ahala, ordea, gero eta artifizio gutxiago behar duzu”. Testua jantzi ordez, erantziz. Jantzera mota da, betiere.

### Behor ezkilak urratzen du eguna mendi gainean. (Josu Jimenez Maia)

Japoniarren poesia molde berezia da haikua, izatez, definiziorik motz hotzengana. Igerabidek badu besterik poesia molde berezi horretaz. “Haikua meditazio baten emaitza da. Kontenplazioan, meditazioan izan dezakegun sentsazioa, argi-printza bat. Horrela irakurtzen ditut nik haiku klasikoak. Zentzumenetik abiatzen da, nahiz eta Mendebaldean gehienbat bestelako haikuak, zerebralagoak, egiten ditugun”. Sentsazio bat, hamazazpikotan –hamazazpi silabatan–, emana. “Baina, berez, nahiko librea da, japoniar tradizioan bertan ere. Meditazioa gorputz-jarrerara jakin batean egiten da, gehienbat. Bada, haikua, berdin: hamazazpi silabakoa da jarrerara, silabaren bat gorabehera”.

Azkonari erakargarri zaio, zinez, haikua. “Poesia bidezko emanaldi gozatsua da haikua; mundua poetikoki esploratzeko bide erakargarria. Tamainak erakartzen nau, oroz gain. Horixe da gakoa: nola egin horrelako poesia. Hain elementu gutxi ditu, eta hain da eder! Eta irakurleari eragiten dion emozio poetikoa! Arnasa laburreko lanak gustatzen zaizkidala ohartu naiz. Badu ikustekoa nire ibilbidearekin, prentsan ere kondentsazio handiko lan motzak egiten baitituz. Eta baita irratian ere. Poesian, berdin, motzetik jo dut, laburretik. Tamaina txikiari dagokionean, goia da haikua poesiaren barruan”.

Bataren sentsazio eta argi-printza, bestearen tamaina txikia... Sentimenduen argazkia du Jimenez Maiak. “Ontzi tipi horretan, arauk zedarrizten duten horretan, une jakin batean bizitakoa, ikusitakoa, usaindutakoa biltzea dut, nik, haikua. Sentimenduen argazkia formula magiko horretan biltzea, eta era iradokitzailen transmititzen ahalegintzea”. Irakurleak idaz-

leak bizitakoaren erdia, herena, jasoko balu, pozik legoke Jimenez Maia. “Erdia jaso, irakurleak berak osatuko du gainerakoa”. Dena dela, abantaila ere badu honen *Gerezi garaiko* lanak, haikuek irudi bana baitute lagun, ondoan. “Nik hitzetan biltzen dut nire sentimendua, eta marrazteko gaitasuna duen beste batek irudikatu du nire hitz kate hori”. Kasu honetan Maite Ramos Fernandezek ilustratu ditu Jimenez Maiaren haikuak.

Barthes eta Baxo aipatuak dizkigu Linazasorok. “Betiko badoan une hori harrapatzea da haikua. Idatzi, eta hortxe, harrapatuta geratu da betiko. Sentsazioa, emozioa, flasha... da lehenengo, hamazazpi silabatan errenditzea, berriz, bigarren, hau da, arkitektura lana: bost-zazpi-bost. Lehenengo *Eguzkia ateri* hartan ez dakit hamazazpi-korik dagoen ere. Bigarrenean bai, izenburuak agintzen duenez, hamazazpikotan jardun nuen, estu-estu, zehaztasun osoz, halaxe nahi izan nuelako. Arkitekturak ere badu alderdi politik!”.

### Haikuttoaren hariari tiraka haizea aztarka. (K. Linazasoro)

Gurean bada haikuaren antza ez baina haren oihartzuna ekartzen digun adierazpidea, hau da, koplara zaharra. Lau idazleok haikura jo dute, koplara gabe. “Haikuak itzultzen hasi, eta euskaraz erritmo handia zutela ohartu nintzen, koplara zaharretik datorkigun tradizioa nuen lagun. Are gehiago, koplara zahararen lehenengo irudiarekin lotzen nuen haikua”, Igerabidek dioenez. “Eta badut nostalgia bide hori gehiago ez landua”.

Azkonak, bere aldetik, galdetua dio bere buruari koplara zahararen inguruan. “Idatziz ditut koplak ere, baina luzeagoak izan! Bi oin, nahikoa dut nik... Baina bi oin, ez da koplara! Koplara, luzeegi zait. Nik laburra behar dut, pertzepzio hutsa”. Zenbat buru, hainbat aburu...

Koplara zaharra, jakina denez, naturari lotua izan da... Baita haikua ere. Jimenez Maiak Lizardi dakar aipura: “Izotz-ondoko eguzki, neguaren farre...’ Nire erronka da hori bost-zazpi-bosteko artefaktu poetikoan ematea. Haikuaren abantaila da labur izatea. Labur, baina ez motz”.

Linazasorok pekoz gora jarri du galdera. “Badira koplara zaharra erabiltzen duten poetak. Horra Patziku Perurena, adibidez, koplara bikainak egiten ditu. Beste mundu bat da koplara, nahiz eta hark ere harreman estua duen naturarekin, haikuak bezala. Haikuak, beste alde, hor du beti denboraren iragankortasuna, atzeman ezintasuna, maitasuna... eta isiltasuna”. ■

